

Maria Zumarraga
Legazpi, Gipuzkoa (-1994)

Aurkibidea

Biografia

Jaiotzaz gabiriarra, Gabiriako Irazola baserrian jaio zen. Hala ere, Irazola Legazpiko mugan dago, Gabiriako herritik urruti. Gazte zela, familia osoa Bikuña Txiki baserrira joan zen bizitzera (Legazpi). Ezkondu ere Legazpira egin zen eta Legazpiko hizkera darabil. Elkarrizketa bere ahizparekin batera egin zitzaion, Anita Zumarraga. Ama zenaren kontuak darabiltzate, Salbatoren neskame izan zenekoa (XIX. mendeko kontuak). Pasadizo bizi eta umoretsuak.

Zintak

LGA-016

- **Proiektua:** Aitor Gurrutxagaren fondoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gurrutxaga, Aitor
- **Data:** 1988-01-01
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

- **Emalea:** Gurrutxaga, Aitor

Pasarteak

1. Anekdotak bat

- **Erref:** LGA-016/001
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Emakume alfer bati buruzko anekdota kontatzen dute.

Transkripzioa

M: Nundik hasten gea? Nun eon zan kriada?

A: Nun eon zanan ba? Maanttonina ez gendunan esan ezta? Ez dakiñat [...].

M: Oso jatorra tokau zikon ta.

A: Jaiki behar izaten zon oso goizago, eunero-eunero, goizeko ordu bitan, o lenau igual, eta gaztaiñak'e egosi behar baldin bazittun, gaztaiñak egosi behar izaten zittun, sua egin, eta gero erre behar bazittun, erre.

M: Haik jaikitzeako.

A: Nausi etxeakoandrak jaikitzeako

M: Ta lenengo, haik tapau ohera junda. Haita jun jaikitakon, eta pipak eman bieirretzeko.

E: A bai e? Pipea eman?

M: Bai. Eta gero, ba, sua ein eta gero hasi behar zon bere lanak eitten. Hori egunero e?

A: Eta gaiñea jun behar izaten zon errota, egunero ez, baiño iriñeta.

M: Noizik peiñetan.

A: Ogia eitteko. Eta behin jaiki zan beti bezela, ta sue ein zon eta bazeon suondon holaxe ta aittu zittun ordu bik.

M: Zeon erdi lotan, ez, arten ez.

A: Tan-tan! Eta ordu bik. Eeene! "Ondio goize dek. Nik oaindik beste lo pixkat iñatio lanak ingo tuat pa!" pentsau omen zun. Ta holaxe, ze in do? Lo hartu pixkat. Eta geo [...] txinpartea erori zako belauten gaiñea.

M: Eta erretzean akordau.

A: Erretzean akordau, berotu zionen. Eta ordun dana bertan bera utzi eta lanak itten hasi.

M: Loa kentzeko modue ein zikon hari!

A: Eta hola. Eta gero besta baten, ai men zien lanak itten gure ama eta nagusie, nausie, eta andrek men zon izena Maanttoni, Maanttoni. Eta umea men zeukien.

M: Joxepatxo.

A: Eta esaten men tzion gizonak: "Anttoni, jatsi zitzu ardi horik, guk hauxe akabatzeako. Guk hauxe in ber deu, ta hauxe akabatzeako jatsi zitzu ardi horik".

M: Esan ta esan ta kasoik ez zion iten.

A: Hartu men tzion umea ta: "Joxepatxo, ja-jai!" itten men zion. Eta berriz'e handik gerotxoa, berriz'e esaten men zion: "Anttoni, eizu gaixo horrek esandakoa! Ardik, ardik jetsi izu gaixo horrek! Ardi jetsi eizu gaixo horrek guk hauxe itteako!" Ta beste "Joxepatxo!" "Ja-jai!" [...] Ta hortan, . Ta halako baten, esanen-esanen, ba, hasi zako ardik jeixten. Ardik jeixten ai da ontzira.

M: Ta gizona eusten.

A: Eez! Gizona ta ama lanen. Eta ardi-jeixten bea. Baiño ze in dio ardi batek? Ostikadea ein ta...

M: Esnea bota!

A: Ontzin zeuzken esnek danak bota eta pixkan bat utzi. Enda hue jun, ta gizonai baldea bota eta: "Muin iok oin heuk!" esan ta alde ein.

M: Danak botata seuro, dana bustita.

A: Dana esnekin goitti bera, tximatatik bera dana esnia dariola geau men zan gizon hori. [...] Ke ba, hoixe aindu ziolako, ta ez ziola ondo erten. Oso alperra men zan andrea e?

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com